

SORGINAREN IRUDIA GAUR EGUNGO EUSKAL HERRIKO HAUR LITERATURAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Izaguirre Munita, Ane.

ZUZENDARIA: Arnal Gil, Javier Ignacio.

2022/2023

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan hau, gaur egungo Euskal Herriko Haur Literaturako obretan agertzen den sorginaren irudia aztertzea helburu duen ikerketa da. Sorgina lanaren protagonista izanik, azken hamarkadan haur literaturan helarazi duen irudia nolakoa den analizatu nahi da, aldaketak jasan dituen ala ez ikusteko. Ikerketa honen oinarria marko teoriko sendo bat da. Bertan, haur literatura feminismoarekin eta emakumearen eta sorginaren irudiarekin harremanetan jarri da. Ondoren, gure korpus literarioa osatzeko irizpideak zehaztu eta horren baitan aukeratutako obrak aipatu dira. Ikerketa burutu ostean, bildutako emaitzak hipotesiekin harremanetan jarri eta ondorioak ateraz, azken gogoeta bat egin da. Amaitzeko, hobetzeko proposamen batzuk planteatu dira.

Hitz gakoak: Haur literatura, sorgina, aldaketa, irudiaren garapena.

RESUMEN

El objetivo de este Trabajo de Fin de Grado es analizar la figura de la bruja en la Literatura Infantil actual, en concreto, se pretende analizar cómo es la imagen que se ha transmitido a través de la literatura infantil en la última década para ver si ha sufrido cambios o no. La base de este estudio es un sólido marco teórico, el cual pone en contacto la Literatura Infantil con el feminismo y la imagen de la mujer y la bruja. A continuación, se detallan los criterios de selección de nuestro corpus literario de estudio, y se mencionan las obras seleccionadas en el marco del mismo. Una vez realizada la investigación, se han puesto en contacto los resultados obtenidos con las hipótesis de partida, para así realizar después una conclusión y reflexión final. Por último, se plantean algunas propuestas de mejora.

Palabras clave: Literatura infantil, bruja, cambio, evolución de la imagen de la misma.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. MARKO TEORIKOA	4
2.1. HAUR LITERATURAREN DEFINIZIOA	4
2.2. HAUR LITERATURA ETA FEMINISMOA	5
2.3. HAUR LITERATURA ETA EMAKUEMAREN IRUDIA	6
2.4. HAUR LITERATURA ETA SORGINAREN IRUDIA	9
3. METODOA	13
3.1. IKERKETAREN HELBURUA	13
3.2. HIPOTESIAK	14
3.3. INFORMAZIOA JASOTZEKO BALIABIDEAK	15
3.4. KORPUS LITERARIOA	18
4. EMAITZAK	19
5. ONDORIOAK	23
6. HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK	26
7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	28
8. ERANSKINAK	31

1. SARRERA

Aitortu beharra dut ez naizela irakurzale amorratua, baina literaturak presentzia handia izan du nire bizitzan txiki txikitatik. Haurra nintzenean izugarri gustatzen zitzaizkidan ipuinak entzutea eta irakurtzea. Hau horrela, orduak eta orduak eman nitzakeen nire gurasoek kotatzen zizkidaten istorioak entzuten. Nire gogokoena *Kukubiltxo* zen, euskal mitologiaren barruan aurkitzen den ipuinetako bat, eta kontatzen zidaten bakoitzean, Kukubiltxo bera nintzela imajinatzen nuen.

Hasieran aipatu bezala, literaturak gure etxean pisu handia du, eta betidanik erakutsi didate zeinen garrantzitsua eta aberasgarria den irakurtzea. Literaturak munduaren beste ikuspegi bat eskeintzen du. Kontatzen den istorio horretan partaide zarela sentiarazten zaitu, irakurtzen ari zaren momentu zehatz hori irudikazeko eta aipatzen dituen emozio zein sentimenduetan murgitzeko ahalmena duelako. Literaturak xede asko ditu, baina nire ustez garrantzitsuenetariko bat ondo pasatzeko balio duela da.

Haurtzaroan izan nituen ipuinak mota ezberdinetakoak ziren, esan dezaket aukera anitza izan dudala. Hori dela eta, literaturak duen xarmaz ohartzeko baliagarria izan zait.

Nire esperientzian oinarrituta, ipuin gehienetan pertsonaia gaizto baten presentzia ezagutu izan dut, gehienetan sorgina eta otsoa direlarik. Bi pertsonaiek ematen zidaten beldurra, baina bereziki sorginek. Etxean badut *La Bella Durmiente* tituluko ipuin bat, non bertako sorgina ezagutu nuenetik, izugarritzko izua sorrarazi zidan sorginekiko.

Haurtzaroan ezagutu ditudan sorginak Disney faktoriakoak dira gehien bat. Bertako istorio eta ipuin guztietan ageri ziren sorginak gaiztoak ziren, eta gehienek ezaugarri berberak partekatzen zituzten: zaharrak, maltzurak, itsusiak, kolore ilunez jantziak eta, oro har, beldurgarriak.

Arestian aipatu dudan moduan, literaturak ondo pasatzeko xedea du. Zenbaitetan, gerta dakiguke bertako pasarteek guk bizitako esperientziekin lotzen ditugula eta, ondorioz, haren inguruan hausnartzea eragiten digutela.

Haurtzaroan irakurtzen diren ipuinetan maiz jazotzen da honako hau, eta adin honetan, batez ere, bertan ageri diren pertsonaiek inpaktu handia sortzen dute irakurlearengan, kasu honetan haurrarengan. Izan ere, nola edo hala, irakurleak pertsonaia horiek erreferentziazat hartzen ditu, eta irakurritako horren antza duen esperientzia bizi ezker, beherala harremanetan jartzen ditu.

Oharkabeen bada ere, sorgina den pertsonaia honek islatu ohi zuen mezua gaizkiaren irudikapen femeninoa zen, eta lehen aipatutakoa kontuan harturik, honek guztiak gaur egungo Haur eta Gazte Literaturan erreproduzitzen jarraituko zuen galdetzen nion nire buruari.

Azken hamarkadan gizartean aldaketa ugari jazo dira, baita haur literaturan ere. Hori dela eta, gai honek jakinmina sortzen zidan, eta interesgarria iruditu zitzaidan literaturako pertsonaia hau hartu eta honen inguruko ikerketa burutzea, gizartearekin batera aldaketarik izan duen ala ez ikusteko, eta egungo jokatzeko eta pentsatzeko ereduera moldatu den behatzeko.

2. MARKO TEORIKOA

2.1. HAUR LITERATURAREN DEFINIZIOA

Haur literaturaren kontzeptua asko eztabaidatu da historian zehar eta horren ondorioz, hainbat definizio erabili dira haur literatura bere horretan definitzeko. Sorianok (1975) adierazten duen bezala, terminoa kontzeptualizatzea zaila da. Izan ere, prozesuan esku hartzen duten faktore ugari daude: egilearen asmoak, edizioaren izaera, ilustratzaileen papera, haurren irizpidea, etab. Bide beretik, Sorianok (1985) aipatzen du haur literatura komunikazio historikoa dela, hau da, denbora eta espazio zehatz batean kokatzen den igorle heldu baten eta hartzailea den haur baten artekoa.

Bestalde, zenbait autoreek diote haur literatura bereziki haurrei zuzenduta dagoela, adibidez Bortolussik (1985: 16 or.) dio: "haur literatura haurrei zuzendutako obra artistikoa da". Modu berean, Ceverak (1989: 157 or.) haur literatura ikuspegi globalizatzaile batetik definitzen du: "ukitu artistiko edo sortzailea duen hitza eta haurra hartzaile gisa duten ekoizpen oro".

Azken definizio integratzaile honetan, Ceverak (1989) haur literaturaren mugak zabaltzea proposatzen du, hala nola, narratiba, poesia eta antzerkia bezalako genero klasikoetatik haratago joatea. Hortaz, lehen aipatutako definizioa kontuan hartuz, haur literatura izateko funtsezko baldintza betetzen duen jarduera edo ekoizpen oro da; betiere edukia sortzailea bada eta didaktikara mugatzen ez bada. Horren adibide dira hitzak irudiarekin harremana duten ekoizpenak (adibidez tebeoak eta albumak) edota irudiarekin edo musikarekin harremana dutenak (adibidez korroan abesteko kantak eta haurrentzako pelikulak).

Ildo beretik jarraituz, Etxanizen (1997) iritziz, haur eta gazte literatura testuaren, egilearen eta haren hartzailearen arteko akordioa da. Bere lanean, arestian aipatutako kontzeptuaren definizioari buruzkoa dena, hartzailearen adinaz mintzatzen diren zenbait autoreek iritzi ezberdina dutela azaltzen du.

J. Iturraldearen ustez, adinak ez du definitzen HGL: "kontua da literatura ona bada, kalitatezkoa, ez duela adinik" (Etxaniz, 1997: 2 or.). Era berean, Etxaniz bat dator bere ideiarekin: "haurrentzat edo gazteentzat idatzia izan ala ez izan, beraiei irakurtzean atsegina sentiarazten dien testu multzoa litzateke. Testu multzo horrek, gainera, hizkera berezia izan beharko luke" (Etxaniz, 1997: 59 or.).

2.2. HAUR LITERATURA ETA FEMINISMOA

Lehenik eta behin, bi termino hauen artean lotura egiteko ezinbestekoa da hauen esanahia argi izatea. Arestian HL-ren definizioa azaldu dugu, oraingo honetan feminismoaz jardungo dugu, ondoren literaturari eta, bereziki, emakumeak literaturan izan duen parte hartzeari buruz hitz egiteko.

Feminismoa, beraz, sexuen arteko orden sinboliko eta estrukturala zalantzan jartzen duen mugimendu kultural, politiko, sozial eta ekonomikoa da, zeinak gizarteak ezarritako generoen arteko desparekotasuna errotik desagerrarazi nahi duen (Serret, Alfie eta García Castro, 1991).

Era berean, Victoria Sau (2000) psikologo eta aktibistak adierazten du feminismoa XVIII. mendearen amaieran sortu zen mugimendu sozial eta politikoa dela, non emakumeak, talde edo kolektibo gisa, patriarkatuaren bitartez gizonarengandik jasan dituen zapalkuntzaz, menderazioaz eta esplotazioaz jabetzea dakarren, eta horren kontzientziaz ahalbidetzean, ekintzara jotzen duen diskriminazio honi aurre egiteko.

Emakumeak literaturan izan duen parte hartzeari dagokionez, aipatu beharra dago presentzia gutxi izan duela. Izan ere, emakumeek betidanik idatzi badute ere, orain dela gutxi arte kanonetik baztertuak izan dira; emakumeen balioa eta gaitasunak gutxietsiak agertu direlarik (Colomer, 1994; Orquin, 1989 eta Turin, 1995).

Horrekin batera, aipatzekoa da autoreen kopuru handiena gizonezkoek hartzen dutela. Ideia hau Aumenteren (2010) iritziarekin bat dator. Berak dioenez, artea historikoki begirada maskulinoaren bitartez irudikatu da, eta denboran zehar gizonezkoek ekoiztiko obrak emakumezkoenekin alderatuz gero, erraz egiazta daitezke historiografiak biltzen dituen emakume artisten lan urriak.

Mugimendu Feminista agertu zenetik, mugimendu politiko eta ideologiko gisa, gaur egun arte, gizartean jazo diren gertaerei eta plazaratzen diren gaiak irakurteta berri bat egin zaie. Hala ere, Penagosek (2004) dio Simone de Beauvoirrek duela berrogeita hamalau urte salatu bezala, gizarte eta testuinguru demokratiko kapitalista edo sozialista batean kokatzen garen heinean, emakumeak izan direla, eta egun izaten jarraitzen dutela, gizonaren azpitik dagoen sexu gutxitua.

Virginia Woolfen garaitik, XX. mendearen hasieratik, gaur egun arte egoera nahiko aldatu da ordea, egun emakumearen eskubideekin batera, mundua irakurtzeko eta interpretatzeko modu berri bat baitago. Feminismoak analisi-estrategi eta -irizpideak garatu

ditu gizonak babestu izan ohi dituen legeak eta arauak argitara ateratzeko eta hauek aldatzeko. Izan ere, orain badakigu emakumeek zientzian, historian, politikan eta gerran parte hartu dutela, antzina -antzinatik. Orain badakigu emakumeek betidanik idatzi izan dutela; ezkutuan gertatu den arren, izengoitiek, hain zuzen ere, dela familiakoen gizonezkoen izenarekin edo asmatutako izen batekin. Urte askotan kontrakoa kontatu den arren, orain badakigu gizarte patriarkatuak urtez urte kontatu duena gezurrezkoa izan dela, badela haren atzean izkutatu den egia (Penagos, 2004).

“Filosofo feminista argiak edozein iraultzarako beharrezkoa den iraultza poetikoaz hitz egiten ari diren bitartean, literaturaren munduak begirada berriez pobre jarraitzen du” (Penagos, 2004: 152 or.). Gutxien argitaratu, irakurri eta kritikatu den idatzitako literatura emakumearena da eta, ondorioz, gutxien ezagutzen dena ere.

Euskal literaturari erreparatuz gero, Atxagak (1997) ere aurreko ideia baieztatu egiten du. Izan ere, euskal literatura berandukoa eta urria izateaz gain, gehienbat gizonezkoena izan dela adierazten du, elizgizonena neurri handi batean.

2.3. HAUR LITERATURA ETA EMAKUEMAREN IRUDIA

Tradizioz, gizarte patriarkalak portaera-eredu jakin batzuk ezarri ditu, zeinak ezberdinak diren gizonentzat eta emakumeentzat. Literatur-iturriek aipatutako eskema hauek transmititu izan ohi dituzte urteetan zehar, non emakumeek eta gizonek rol estereotipatuak erreproduzitzen dituzten, hala nola, tradizioz beren sexuari esleitu zaizkien zereginak eta ezaugarri fisiko zein psikologikoak (Martinez, 2022 eta Oliván, 2017). Jarrera eta balore hauen iturria anitza izan da, horien artean familia, eskola, komunikabide ezberdinak edota Estatua eta Eliza (Parra, 2009).

Ildo beretik, Colomerrek (1999) dio ez dela haur literatura baino tresna hoberik gizartea bere horretan den bezala erakusteko. Izan ere, hori izango baita helduak haurrari helaraziko dion mezua, mundua zein ikuspegitik begiratu beharko lukeen azaltzen baitio. Hori ez ezik, Barraganek (1989) dio ipuin tradizionalak zein egun diren bilduma modernoek, inguratzen gaituen mundua interpretatzeko ikuspegi ezberdinak eskaintzen dizkigutela. Interpretazio hau ordea nagusiki sexista da, kultura nagusiaren eta ezarritako orden sozialaren isla gisa erakutsi baita.

Sexismoaren funtsezko ezaugarriei begira, honako hauek aipa ditzakegu: alde batetik, haurrentzako rol sozial ezberdinak eta diskriminatzaileak esleitzea, eta bestetik, funtzio sozialak, janzkerako kanpoko elementuak, apaingarriak eta gizakia definitzen duten

jarrerak sustatzea. Are gehiago, alderdi topikoenak aipatzearen, haur literaturan aurkezten diren pertsonaia maskulinoak nagusiki aktiboak, ekintzaileak eta ondorioz, gatazka sozialak edo pertsonalak beren kabuz konpontzeko gai dira. Pertsonaia femeninoak, berriz, aurrekoen laguntzaren menpe egongo dira beti, eta horrenbestez, identitate femenino eta pertsonala ez ezik, autoestimua ere galtzen dituzte (Barragan, 1989).

Mexikoko Secretaría de Educación Pública y Programa Universitario de Estudios de Género-k (2010) azaltzen duen bezala, jarraian agertzen den taulako ezaugarriek feminitatearen edo maskulinitate estereotipatuaren berezko ezaugarriak justifikatzen dituzte.

NIÑAS	NIÑOS
Dócil	Valiente
Dependiente	Independiente
Insegura	Seguro de sí
Sensible	Razonable
Hogareña	Inquieto
Comprensiva	Aventurero
Delicada	Tenaz
Tierna	Fuerte
Afectiva	Brusco
Intuitiva	Práctico
Temerosa	Temerario
Sumisa	Desobediente
Pasiva	Activo

Iturria: Secretaría de Educación Pública y Programa Universitario de Estudios de Género (2010). *Equidad de género y prevención de la violencia en primaria*. México: Secretaría de Educación Pública/Programa Universitario de Estudios de Género.

Liburuetakoren protagonisten sexuari dagokionez, Etxanizek (2007) bere lanean honako aldagai hau aztertzen du, eta horretarako lau ikerketa ezberdinetako emaitzak alderatzen ditu. Lehen ikerketa Etxanizek berak burutu zuen (1994ko 38 liburu aztertu zituelarik), bigarrena Colomerrek (150 lanen inguruko azterketa egin zuen), hirugarrena Association Européenne du côté des filles-ek (1998) (irudi liburuetakoren 2.396 protagonista aztertu ziren baina Espainiako datuetan oinarrituko gara) eta, azkena, AEB-ko Princetowngo Unibertsitateak (1971an eginiko ikerketa). Lau ikerketetan aterako emaitza jarraian agertzen den taulan ikus daiteke:

LIBURUETAKO PROTAGONISTAREN SEXUA			
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	Gizon-emakumea
Etxaniz	% 18,2	% 60,6	% 21,2
Colomer	% 29,5	% 62,8	% 7,7
Association Européenne du côté des filles	% 43-45	% 57-55	
Princetowngo Unibertsitatea	% 25	% 75	

Iturria: Etxaniz, X. (2007). *Literatura eta ideologia*. Utriusque Vasconiae.

Ikus daitekeen bezala, datuek erakusten dute emakumeen presentzia gizonezkoena baino txikiagoa dela kasu guztietan.

Era berean, bada Fernandezek eta Etxanizek 2019. urtean eginiko beste ikerketa bat, non bertan gaur egun emakumeak HGL-n duen presentzia aztertzen den. Ikerketa hura aurrera eramateko, alde batetik, euskal egileek 2013. urtean idatzi zituzten 55 liburu aztertu dira eta bestetik, 2009 eta 2014 urte tartean sarituak izan ziren 19 sorkuntza-lan.

Aztertutako 74 lan horietan zenbait aldagai analizatu dira, hala nola, genero-estereotipoak, protagonistaren sexua (berrito ere), etxeko lanen banaketa, familia zaintza eta ordaindutako lanak. Ikerketa horretako emaitzek erakusten dute euskal HGL-n emakumearen presentzia handitu den arren, oraindik ezin dela berdintasunaz hitz egin, egun genero-estereotipoak transmititzen jarraitzen direlako.

Argi dago aipatu diren bi ikerketa hauek bat egiten dutela Mexikoko lanean azaldutakoarekin. Beraz, ondorio nagusi bat atera daiteke guzti honetatik: ikerketa hauek argi eta garbi adierazten digutela zein irudi transmititzen den euskal HGL-n. “Protagonista nagusiak gizonetzkoak dira, boterea beraiek dute eta lanbide edo jokabide erakargarrienak gizonetzkoen esku daude” (Etxaniz, 2007: 23 or.).

2.4. HAUR LITERATURA ETA SORGINAREN IRUDIA

Sorginak betidanik izan dira gaizkiaren irudikapen femeninoa, zeinak edabeak edo sorginkeriak egiteko ahalmenak dituzten. Ez da harritzekoa, beraz, ahozko tradizioaren garaitik haren irudia zoritxarren eta desgrazien eramaile gisa erabili izana literaturan (Fernandez, 2015).

2.4.1. Sorginaren definizioa

Hala eta guztiz ere, ikerketa honetan aurrera egiteko beharrezkoa da jakitea “sorgina” kontzeptuaren esanahia zein den eta nondik datorren. Caler-ek (2021) dioenez, sorginaren kontzeptua eta honen ondorioz datozen errepresioak, Eliza Katolikoak sortu zuen Aro Modernoan Deabrua Lurrean dagoela justifikatu ahal izateko, eta baita kristau erlijioa ez jarraitzeagatik zeuden heresiak justifikatzeko ere.

Euskaltzaindiak (d.g.) kontzeptu honen inguruan bi definizio ematen ditu, aipatutako ideiarekin bat egiten dutelarik: “Herri sineskeriaren arabera, deabruarekiko hitzarmen baten ondorioz-edo, indar ezkutuen jabe den pertsona” (Euskaltzaindia, d.g., 1.definizioa). Besteak, berriz, honela dio: “Haur ipuinetan, atso itsusia, zoritxarra ekartzen duena” (Euskaltzaindia, d.g., 2.definizioa).

2.4.2. Sorginaren historia Europan eta Amerikan

Jarraian, sorginen historiari buruz hitz egingo dugu, ondoren literaturan egin den irudikapenarekin alderatzeko.

Sorginak medikuntza zientzia moderno bezala agertu baino askoz lehenago bizi eta hil ziren sutan. Sorgin gisa kondenatutako emakume gehienak nekazariak ziren, sendagile ez-profesional gisa jarduten zutenak, hain zuzen ere. Haiek jasan izan zituzten errepresioek, gizonetzkoek emakumeak medikuntzaren praktikatik kentzeko borrokan dute abiapuntua. Lanbide berri honen sorrerak Europan eragin nabarmena sortu zuen eta, ondorioz, inkisidoreei argudioak eman zizkieten sorgin-ehiza abian jartzeko (Ehrenreich eta English, 1981; Federeci, 2016).

Horrekin batera, aipatzekoa da Amerikako lurraldean sorginkeriagatik auzipetuak izan ziren haietako asko esklabo bihurtutako emakumeak izan zirela. Honen adibide dugu Tituba, Estatu Batuetan auzipetu zuten lehen emakumeetako bat (Tenenbaum, 2022).

Aurreko ideia honekin lotuta, Eugenia Tenenbaum-ek (2022) dio Hands Widitz-ek 1532.urtean *El herbolario de la bruja* izeneko liburuan lehen aipatutako sendagileen ezagutzei buruz hitz egiten duela. Horiek ahoz transmititzeaz gain, belaunaldiz-belaunaldi transmititu direla esaten zuen. Hau horrela, medikuntza instituzionalizatzen hastearekin batera, estatusa irabazten hasi zen eta, emakume horiek zein beren ezagutzek enbarazu egiten zuten, baztertuak izan ziren medikuaren figura maskulinoa agertu zelako.

Era berean, Tenenbaum-en (2022) arabera, sendabide fitoterapeutikoak ezagutzen zituzten emakumeak arriskutsuak ziren, hauek abortuak egiten baitzekiten. Arrazoi honengatik zabaldu zen sorginek haurrak jaten zituzten ustea, baina errealitatean, ordea, ez zuen zerikusirik. Izan ere, emakume hauek beste batzuei haurrak ez izaten laguntzen zieten. Milaka urtez zeraman lanbide hau egiten zuten emakume jakintsuei autoritatea kentzea gutxi balitz, garai hartan ziren baldintzek ez zuten laguntzen egoera hobetzen, higiene baldintza kaxkarrek eta baldintza klimatologikoen haurren heriotza-tasa altuak izatea eragin zutelako.

Sorginen jazarpena edota "sorgin-ehiza" Aro Modernoko fenomeno bereizgarrietako bat izan da, bai Amerikan eta bai Europan. Hala eta guztiz ere, sorginaren figura lehenagotik existitzen bazen ere, hau da, Antzinako Greziatik, Antzinako Erromatik eta Erdi Arotik, XV.mendearen amaiera arte ez zen sorginaren figura halakotzat hartzen (Tenenbaum, 2022).

Silvia Federecik (2016), *Caliban eta sorgina* liburuan, sorginen jazarpenaren arrazoietakoa bat herri guztiarentzat ziren lurra pixkanaka pribatizatzea izan zen hipotesiari eusten dio. Horrek nekazarien artean kexa ugari egotea eragin zuen, gogor zapalduak izan baitziren. Hori dela eta, gizon eta emakume asko erail ziren, baina emakume zaharrak izan ziren lehen aipatutako lur horietan zehar askatasunez ibiltzea zer zen gogoratzen zuten komunitateko pertsona bakarrak, eta, ondorioz, emakume zaharrenak sorginkeriak salatutako eta jazarriak izan ziren.

Sorginkeriak salatutako emakumeen jazarpenarako erakunde edo entitate nagusiak Eliza eta Inkisizioa izan direla pentsatu ohi da, baina honako hau ez da guztiz egia. Federici-k (2016) lehen aipatu dugun liburuan dio, nahiz eta Eliza katolikoak eta Inkisizioak sorginkeriak salatutako emakumeen kontrako jazarpenari hasiera eman, sorgin-ehizak arduratu zen botere nagusia botere zibila izan zela, hala nola, epaileak, gobernadoreak, lurjabeak eta inolako botere erlijiosorik ez zuten botere zibil eta politikoa zuten gizonak. Izan

ere, botere zibilak jazarpena aurrera eraman bitartean, Eliza eta Inkisizioa okupaturik zeuden juduak kanporatzen eta jazartzen. Beraz, sorginak juduekin parekatzen zituzten beren sudurraren formagatik. Modu honetara, indarrean zeuden instituzio horiek beren intereseko bi gizataldeak desagerrarazi nahi zituzten, hau da, juduak eta sorginak.

2.4.3. Sorginak Euskal Herrian

Halaber, Europan eta Amerikan ez ezik, Euskal Herrian ere sorgin-ehiza burutu zen. Miren Mindegia kazetariaren eta Adur Larrearen *Maria Zugarramurdikoa eta sorginduek izan ziren emakumeak* (2019) komikiak, Maria Baztanen, Logroñoeko prozesuan epaitutako eta sutan erretako biktimaren istorioa kontatzen du. Istorioaren trama fikzionatuta dagoen arren, plazaratzen den gaia errealitatean gertatu zenaz mintzatzen zaigu.

Komikiaren helburu nagusia Inkisizioak erabilitako “sorgin” hitz maltzuraren atzean dagoen benetako emakumea erakustea da, prozesua sufritu zuten emakume horientzat justizia berri bat bilatzea, hain zuzen (Nabarralde, 2018). Sutan erre zituzten emakume horiek Inkisizioaren eskuetan erori ziren biktimak ziren. Emakume hauek, hain zuzen ere, kristautasunarekin zer ikusi gutxi zuten sinismen propioak zituztenak ziren, naturaren ezagutza zutenak (asko sendagileak edota emaginak zirelarik), eta inposatu nahi zen sistema patriarkal, kristau eta misoginoari aurre egiten ziotenak.

2.4.4. Sorginak literaturan

Behin sorginen historia zein izan den jakinda, oraingoan pertsonaia honek literaturan nolako bilakaera izan duen aztertuko dugu, baita gaur egungo ipuinetan nola islatzen den ere.

Ferreirak (2017) dioenez, sorginak bilakaera literario izugarria izan zuen, deabrutze prozesu bat jasan zuelarik. Hasiera batean konnotazio negatiborik gabeko irudia zuen, emakume jakintsu, gaitzen sendagile eta alkimia, astrologia eta kabala ezagutzen zituena. Irudi horretatik erratz gainean zebilen eta piramide itxura zuen kapeladun emakume itsusi eta zaharraren irudi eskematizatu batean amaitzera igaro zen. Hau horrela, Erdi Aroko kristautza prozesuaren eta gizartean zegoen ideologia patriarkalaren ondorioz, bere irudia zein izaera erabat aldatu edota deformatu zen; sorgina ikuspegi kristau negatibo batera eraldatuz.

Era berean, Erdi Aroan magiarekin eta haren egileen inguruko misterioari loturiko gaiak literaturan erakargarritasuna piztu zuten nolabait. Izan ere, garai horretan agertu baitziren ustez sorginek eta azteiek sorturiko liburuak, non askotariko praktika magikoak

deskribatzen ziren bertan (Fernandez, 2015).

Sorginaren irudiari dagokionez, Fernandezek (2015) dio Espainiako Erdi Aroan sorginkeriak aipatzen edota agertzen hasi zirela zenbait obretan, hala nola, *Libro de Apolonio* (XIII. mendearen bigarren erdialdean datatua) edo Fernando de Rojas-en *La Celestina* izeneko XV. mende amaieran idatzitako obra famatua, biak literatura klasikoan inspiraturiko igarpenezko pasarteak barne hartzen dituztelarik.

XX. mendera arte kontakizun hauek guztiak haur literaturatik at geratu ziren. Izan ere, gaur egun ezagutzen ditugun haurrentzako ipuin klasikoak, hasiera batean ez ziren haurrentzat idatzi. Milan-ek (2014) dioen bezala, inflexio puntu horretan egokitzapen prozesu bat jazotzen da, lehenengo bertsio gordina alde batera uzten baita. Halaber, amaiera zoriontsuak geroz eta maizago agertzen dira eta era berean, haurra seguruago sentitzen den mundu berri bat sortzen da, haurrak balio jakin batzuetan hezten direlarik.

Hau horrela, sorginak haur liburuen parte izatera igaro ziren, baina egun ditugun ipuinetan erraz ikus daiteke sorginaren bertsio berri bat islatzen dela klasikoetan ikusten denarekin alderatuz gero (Lluch, 2007).

Sorginaren elementu ikonografikoei dagokienez, honakoak aipa ditzakegu: emakume zaharra, itsusia eta sudur nabarmena duena, erratz baten gainean biluzik dabilena, arropa ilunak eta kono itxura duen kapela janzten duena, katu beltz batekin dabilena, akelarreak egiten dituena eta deabrua irudikatzeko bere inguruan aker buru bat duena (Tenenbaum, 2022). Honen adibide ditugu ipuin klasikoetan agertzen diren sorginak, hala nola, *Edurnezuri* eta *Hansel eta Gretel*.

Hala eta guztiz ere, Ferreirak (2017) dioenez, egungo ipuinetan bi sorgin mota bereizten dira duten itxura fisikoaren arabera: tradizionala, lehen aipatutako ezaugarriak izango lituzkeena, eta itxura erakargarri edo normala duena.

Bestalde, Caterina Valriu (1998) irakasle eta ikertzaileak, ipuinetan hiru sorgin eredu aurki daitezkeela ondorioztatzen du. Lehena, sorgin estandarizatua, gaizkiaren errepresentazio gisa eta aurrez ezarritako eskemei erantzuna emanez agertzen dena. Bigarrena, sorgin gizatiartua, psikologikoki osatuagoa den pertsonaia egituratuena da eta gazte literaturan agertu ohi da maiz. Azkena, komikotasuna dela medio desmitifikatutako sorgina, beldurra eman ordez barregura ematen duena da, eta honako hau, umorezko eta ganoragabeko Haur eta Gazte Literaturan ikus daiteke.

Gaur egungo HGL-ko lanetan sorginaren pertsonaia ikuspegi ezberdin batetik begiratzen da, honen irudia umorez eta adeitasunez erabiltzen delakoan. Beatriz

Fernandezek (1997) dioenez, sorginak ez dira pertsonaia beldurgarriak, nahiago dute zintzoak eta atseginak izatea botereak gaizkia egiteko erabiltzea baino; botereak erabiltzekotan gainontzekoei laguntzeko erabiltzen baituzte. Eta, amaitzeko, arestian aipatutako sorgin ereduekin batera, sorgin berritzailea ageri da (egungo gizartean apoposak diren balioak proposatzen dituen).

3. METODOA

3.1. IKERKETAREN HELBURUA

Aurrera eraman den ikerketa honen helburua, azken hamarkadako Euskal Herriko Haur Literaturako liburuetan agertzen den sorginaren irudia aztertzea da. Horretarako, korpus bat osatu da azken hamar urteetan argitaratu diren liburu ezberdinekin.

Arestian aipatu dugun moduan, sorginak emakume zahar eta gaiztoaren pertsonaia gisa islatu dira aspalditik eta figura honek haur literaturan aldaketarik jasan duen ala ez ikusi nahi da. Izan ere, egun aurrera eramaten ari den mugimendu feministaren ondorioz, emakumea izatearen begirada urteetan zehar pixkanaka aldatuz joan da gure gizartean; indarra eta lekua hartu duelarik. Ondorioz, gizartean gertatutako bilakaera honek HL-n eragina izan duelakoan gaude, sorginaren irudia berritzeko asmoz aldaketak eman direla uste baitugu, hain zuzen ere. Hori dela eta, jarraian agertzen diren hipotesiak planteatutako helburua ikertzeko oinarri izan dira.

3.2. HIPOTESIAK

1. Tenenbaum-ek (2022), sorginaren elementu ikonografikoen artean, emakume zaharra izatea nabarmentzen du. Hala eta guztiz ere, arestian ikusi dugu egun sorginaren perfila ikuspegi ezberdinetara zabaldu dela. Hau kontuan izanik, uste dugu gaur egungo ipuinetan sorgin gazteak topatuko ditugula eta ez orain arte ohikoa izan den moduan pertsona zaharra edota heldua bakarrik. Izan ere, pertsonaia honen irudia desmitifikatu eta berritu edota leundu nahi delakoan gaude.
2. Ferreirak (2017) dioenez, itxura fisikoaren arabera bi sorgin mota bereizten dira egungo ipuinetan: tradizionala, arestian aipatutako ezaugarriak dituen (zaharra eta sudur luzea duena adibidez), eta berritzailea, itxura erakargarri edota ohikoagoa duena (gaztea edo haurra eta beldurrik ematen ez duena adibidez). Hau horrela izanik, uste dugu aukeratutako korpusean sorgin gazteak topatzeaz gain, itxura erakargarria izango dutela beren irudia leuntzeko eta orain arte izan duen estereotipetik aldentzeko.
3. Pertsonaia honen inguruan agertzen diren elementuei dagokienez, pertsonaia erraz identifikatzeko, uste dugu lehen Tenenbaum-ek (2022) aipatu dituen ipuin klasikoetako elementu berberak topatuko ditugula egungo ipuinetan ere, nahiz eta sorginaren irudia berritzailea izan, hala nola, erratza eta katu beltza.

4. Fernandez-ek (1997) dio gaur egungo HGL-ko lanetan sorginaren pertsonaia ikuspegi ezberdin batetik begiraten dela, maltzurkeria albo batera uzten dutelarik. Hau horrela, aipu hau beteko dela uste dugu, hau da, gehienetan sorginak pertsonaia zintzo eta atsegin gisa topatuko ditugula eta ez maltzur bezala (ipuin klasikoetan helarazten den irudia aldatzeko asmoz).
5. Erabiltzen duten arropari begira, ipuin klasikoetako sorginek erabiltzen dituzten kolore ilunak eta, batez ere kolore beltzaren erabilera murrizta topatuko dugula uste dugu. Izan ere, aurreko hipotesiari jarraipena emanez, ez dugu uste sorginak pertsonaia maltzur gisa agertuko direnik, eta kolore ilunak pertsonaia maltzurak eta gaiztoak deskribatzeko erabili ohi direnez, kolore ilunen erabilera gutxitu egingo delakoan gaude. Honekin batera, kolore biziak protagonismo handiena ez izan arren, presentzia izango dutela uste dugu.
6. Botereak dituen emakume gisa, uste dugu gainontzekoei laguntzeko abileziak eta trikimailuak erabiliko dituzten sorginak topatuko ditugula ipuin hauetan. Ehrenreich-ek eta English-ek (1981) sorgina izateagatik kondenatutako emakume gehienak nekazariak izan zirela defendatzen dute, sendagile ez-profesional gisa jarduten zutenak, hain zuzen ere. Horregatik, urteetan zehar iragarri den sorgin maltzuraren eta gaiztoaren ideia desmitifikatzeko, sorginaren rola gainontzekoei laguntzea izango dela uste dugu (sorginek betidanik izan duten lanbidea berreskuratuz).
7. Azken ideia honi loturik, Mexikoko Hezkuntza Publikoko Idazkaritza eta Genero Ikasketen Unibertsitate Programak (2010) argitaratutako feminitate eta maskulinitate estereotipatuen ezaugarriak agertzen diren taula kontuan izaik, uste dugu jarrera ezberdin bat erakusten duten sorginak topatuko ditugula, hau da, itxuraz tradizionalki emakumeari egokitu ez zaizkion ezaugarriak erakutsiko dituztela, adibidez: ausartak, independenteak edota beren buruaz seguru eta harro sentitzen direnak.

3.3. INFORMAZIOA JASOTZEKO BALIABIDEAK

Korpusetik jasotzen den informazioa guztia aztertzeko, eta bildutako emaitzetatik ondorioak ateratzeko, analisirako fitxa bat sortu da. Fitxa honetan, lehen aipatutako hipotesiekin bat egingo duten atal ezberdinak egongo dira. Hona hemen fitxa osatzen duten atal bakoitzaren azalpena:

1. Lehenengo atal honetan liburuaren informazio orokorra bilduko da, hala nola, izenburua, idazlea, ilustratzailea, editoriala, argitalpen urtea eta herrialdea,

hizkuntza, itzulpena den ala ez, eta, itzulpena den kasuan jatorriko hizkuntza zein den.

Izenburua:					
Egilea: (idazlea) eta (ilustratzailea)					
Editoriala	Argitalpen urtea eta herrialdea	Hizkuntza	Itzulpena		Jatorrizko hizkuntza
			Bai	Ez	

2. Bigarren atalak planteatutako lehenengo hipotesiarekin bat egiten du. Hau horrela, pertsonaia honen adina galdetzen dela eta, honen emaitza, "heldua" edota "gaztea/haurra" izango da.

1. Zenbateko adina du sorginak?	
Heldua	Gaztea / Haurra
Oharrak:	

3. Hirugarren atalak bigarren hipotesiarekin du harremana. Kasu honetan, sorginaren ezaugarri fisikoak aztertu nahi dira eta emaitzak "itsusia/ez erakargarria", "erakargarria" edota "beste batzuk" dira.

2. Zein ezaugarri fisiko ditu?		
Itsusia / Ez erakargarria	Erakargarria	Beste batzuk
Oharrak:		

4. Laugarren atalak hirugarren hipotesiari egiten dio erreferentzia. Oraingoan, bere inguruan agertzen diren elementuak aztertu nahi dira eta erantzunak sorginak laguntzeko ohikoak diren “erratza”, “katu beltza”, “lapikoa”, “akerra” eta “beste batzuk” dira.

3. Zein elementu agertzen dira bere inguruan?				
Erratza	Katu beltza	Lapikoa	Akerra	Beste batzuk
Oharrak:				

5. Bosgarren atalak laugarren hipotesiarekin zerikusia du, eta honetan lehendabizi maltzurra den ala ez adierazi beharko da, eta ezezkoan, ea gainontzekoei laguntzen dien ala ez.

4. Maltzurra da?		
Bai	Ez	
	Gainontzekoei laguntzen die?	
	Bai	Ez
Oharrak:		

6. Seigarren atalak bosgarren hipotesiarekin bat egiten du. Kasu honetan, janzkerari erreparatuko zaion galdera planteatu da eta honako hauek dira emaitzak: “ez du arroparik, biluzik dago”, “ilunak/beltzak”, “koloretsuak”, “kapela darama” eta “beste batzuk”.

5. Zer nolako arropak janzten ditu?				
Ez du arroparik, biluzik dago	Ilunak / beltzak	Koloretsuak	Kapela darama	Beste batzuk
Oharrak:				

7. Azken atal honek, seigarren hipotesiaren harira, emakue jakintsua den ala ez aztertu nahi du. Horretarako “bai” edo “ez/ez dakigu” adierazi beharko da, eta baiezkoa den kasuan, zein ezagutza mota den adierazi: “alkimia”, “astrologia”, “sendabide naturalak” edo “beste batzuk”.

6. Emakume jakintsua da?			
Bai	Ez / Ez dakigu		
Zein ezagutza mota erakusten ditu?			
Alkimia	Astrologia	Sendabide naturalak	Beste batzuk
Oharrak:			

3.4. KORPUS LITERARIOA

Korpus literarioa ikerketa aurrera eramateko tresna garrantzitsuena izan da. Gure korpusean 11 liburuk hartzen dute parte eta hauek gure ikerketaren lagina osatu dute. Obra hauen aukeraketa prozesua ezinbestekoa izan da lan esanguratsu bat burutzeko, eta horretarako, irizpide jakin batzuk ezarri dira:

- Hizkuntza: Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetan idatzia (itzulia ala ez) egotea (euskara edo gaztelera).
- Adina: Haur literaturako obrak izatea, oro har, 0-6 urte bitarteko haurrei zuzendutako

ipuinak izatea, salbuespenak salbuespen.

- Argitalpen urtea: azken 10-15 urtetako obrak izatea, hau da, 2013tik aurrerakoak. Hau horrela, azken hamarkada honetako bilakaera gertuoa sentitzen dugu eta aztertutako lanek bizirik jarraitzen dutela berma dezakegu.
- Autorea: lehentasuna euskal autorea izatea.

Irizpide hauek aintzat harturik, 11 ipuinez osaturiko korpua osatu dugu. Ez da lan erraza izan irizpide guztiak betetzen dituzten ipuinak lortzea. Izan ere, autoreei dagokienez, euskaldunak direnak bi bakarrik aurkitu ditugu, gainontzeko guztiak erdaldunak direlarik. Hori ez ezik, hasiera batean obra guztiak euskaraz izatea zen asmoa, baina honako irizpide hau betetzeko zailtasunak izan ditugunez, zenbait liburu gazteleraz idatzita daude, 4 hain zuzen ere. Dena den, hartutako korpusaren obra guztiak Euskal Herriko umeei dituzte eskuragarri.

Adinari dagokionez, oro har, obra gehienak Haur Literaturari dagozkio, bat izan ezik, *Mari, Meri eta Mori sorgin ausartak* (Kazabon, 2022). Ipuin hau 8 urteko haurrei bideratuta dagoen arren, autore euskalduna izatearen baldintza betetzen du eta arestian aipatu bezala, autore euskaldunen kopurua urria denez, berebizikoa ikusi dugu korpusean txertatzea.

Azkenik, argitaratze datari begira, azken bost urteetan duela hamar urte baino obra gehiago argitaratu direla behatu dugu. Horrez gain, badira jatorrizko hizkuntzan 2001, 2005 eta 2006. urteetan lehen edizioa argitaratu ziren obrak, baina egun oso bizirik jarraitzen dutenez, egokia iruditu zaigu korpus honetan txertatzea.


Hau guztia aipatu ostean, hona hemen sorginei buruzko hautatutako 11 obrak:

- Acosta, A. (2022). *La bruja Amalurra y la magia más poderosa*. Carambuco.
- Brusa, M. (2019). *Cosas de bruja*. Nube Ocho.
- Canizales. (2019). *Polita*. Denonartean.
- Donaldson, J. (2021). *A zer erratz fina, pirulina!*. Bruño.
- Irusta, A. (2014). *Sorginak*. Susaeta.
- Irusta, A. (2014). *Sorginak eta bi konkorrak*. Susaeta.
- Isern, S. (2021). *Daniela pirata eta Sofronisa sorgina*. Nube Ocho.
- Kazabon, A. (2022). *Mari, Meri eta Mori sorgin ausartak*. Denonartean.
- Meroto, T. (2017). *Sorgina Kirris Karras*. Txalaparta.
- Olid, B. (2020). *Las Brujas de Ariete*. Combel.
- Thomas, V. (2017). *Brunilda y Bruno. La Bruja Brunilda*. Blume.

4. EMAITZAK


Atal honetan, gure korpus literarioa aztertu ostean bildutako emaitzak azalduko dira.

1. Zenbateko adina du sorginak?




11 ipuinetatik %81,1ean (N=9) sorgina pertsona heldu gisa ageri da.

2. Zein ezaugarri fisiko ditu?




Obra gehienetan, zehazki 11etik %31k (N=9), sorginak itsusia izatearen ezaugarria betetzen du. Horrekin batera, %24,1ean (N=7) ikusi da sudur nabarmena duela eta horietatik %10,3k (N=3) garatxoa. Bestalde, hortz zorrotzak edota gutxi izatea %13,8an (N=4) errepikatu da.

3. Zein elementu agertzen dira bere inguruan?




Bere inguruan ageri diren elementuei dagokionez, erratza (%15,1, N=8), lapikoa (%18,9, N=10), edabeak (%15,1, N=8) eta beste animalia batzuk (%20,8, N=11) nabarmentzen dira gehienbat, hala nola, igelak, armiarmak, saguak, zozoak, sugeak eta zomorroak.

4. Maltzurra da?



Korpus erdiak baino gehiagok, zehazki %58,3k (N=7), sorgina zintzoa edota atsegina dela erakutsi du.


Gainontzekoei laguntzen die



Horrez gain, zintzoak diren horietatik %85,7k (N=6) gainontzekoei laguntzen diola agertu da.


5. Zer nolako arropak janzten ditu?

Janzkera




Kolore ilunak egun agertzen jarraitzen badu ere, kolore bizien presentzia handitu egin da, zehazki %19,4an (N=7). Bestalde, kapelak %16,7 (N=6), soinekoak %16,7 (N=6) eta botinek %16,7 (N=6) sorginaren janzkeran ohikoak izaten jarraitzen dutela ikusi da.

6. Emakume jakintsua da?



Obra batean izan ezik, gainontzeko guztietan sorgina emakume jakintsu gisa agertu da (%90,9, N=10).



Emakume jakintsu agertu diren obra guztietatik bakarrean ageri dira sendabide naturalak (%9,1, N=1), gainontzeko guztietan ez da zehazki agertzen zein ezagutza mota dituen (beste batzuk, %90,9, N=10).

5. ONDORIOAK

Lan honen hasieran, sorginaren pertsonaiari buruzko hainbat hipotesi planteatu ditugu, non ikerketan aurrera egin ahala, gure uste eta ideia horiei erantzuna bilatzen joan garen. Orain, gure korpuseko obrak aztertu ostean, jasotako informazio guztiari buruz hausnartzeko unea heldu da.

Atal honetan, arestian burututako hipotesiak bildutako emaitzekin harremanetan jarriko ditugu, eta hauek adituek esaten dutenarekin bat egiten duten ala ez behatuko dugu. Izan ere, ikerketa honen helburua gaur egungo Euskal Herriko Haur eta Gazte Literaturako liburuetan agertzen den sorginaren irudia aztertzea da, aldaketarik jasan duen ala ez behatzeko. Beraz, galdera honen erantzuna bilatzen saiatuko gara hemen.

Lehenengo hipotesian, sorgin zahar eta helduen ordeztu, sorgin gazteen presentzia topatuko genuela aipatu genuen. Ideia hau bildutako emaitzekin alderatuz gero, ikusenez bete dela, baina nahiko portzentaje baxu batean. Izan ere, hamaika obretatik %18,2an soilik (N=2) ageri dira sorgin gazte edota haurrak direnak. Beraz, ikus dezakegu emakume zaharra izateak pertsonaia honen ezaugarri nagusienetako bat izaten jarraitzen duela; Tenenbaum-ek (2022) defendatzen duen bezala, hain zuzen ere.

Bigarren hipotesiari dagokionez, sorgin gazteak topatzeaz gain itxura erakargarria dutenak topatuko genituela aipatu genuen. Izan ere, Ferreirak (2017) dioenez, egungo ipuinetan bereziki bi sorgin mota bereizten dira itxura fisikoaren arabera: tradizionala eta itxura erakargarri edo ohikoagoa duena. Jasotako emaitzetan ikus daitezkeen bezala, hipotesia bete dela esan dezakegu, baina oraingoan ere portzentaje nahiko baxuarekin; hamaika obretatik %6,9an (N=2) agertzen baitira itxura erakargarria edota neutroa (%3,4, N=1) dutenak.

Era berean, itsusia edota ez erakargarriak diren sorgin gehienek ezaugarri berbera partekatzen dute, hala nola, sudur nabarmena izatea (%24,1, N=7) eta zenbaitetan garatxoa (%10,3, N=3); hemen ere Tenenbaum-ek (2022) dioenarekin bat egiten duela ikus daiteke. Horrez gain, hortz zorrotzak edo gutxi izatea ere (%13,8, N=4) errepikatu den ezaugarria dela behatu dugu.

Hirugarren hipotesian, egungo ipuinetan nahiz eta sorginaren irudia berritzailea ageri, pertsonaia erraz identifikatzeko baliagarriak diren ipuin klasikoetako elementu berberak topatuko ditugula aipatu dugu, hala nola, erratza eta katu beltza (Tenenbaum, 2022). Emaitzei erreparatuz gero, ikus dezakegu erratzak (%15,1, N=8), lapikoak (%18,9, N=10), edabeak (%15,1, N=8) eta katu beltzak (%7,5, N=4) zein bestelako animaliek

(%20,8, N=11) presentzia handia hartzen dutela obretan. Izan ere, ipuin guztietan ageri da aipaturako elementuren bat gutxienez.

Laugarren hipotesian, sorginek maltzurkeria albo batera utziko zutela esan genuen. Hori dela eta, ipuin klasikoetan helarazten den irudia aldatzeko asmoz, ipuin gehienetan sorginak pertsonaia zintzo gisa topatuko genituela defendatzen genuen. Emaitzek, ordea, egoera paretsua erakusten dute, hamaika ipuinetatik %58,3an (N=7) sorgin atsegina edota zintzoa agertzen delarik. Hau kontuan harturik, ikus daiteke neurri esanguratsu batean gure hipotesiak Fernandezek (1997) dioenarekin bat egiten duela. Izan ere, berak sorginak ez direla pertsonaia beldurgarriak defendatzen du. Are gehiago, nahiago dutela zintzoak eta atseginak izan botereak gaizkia egiteko erabiltzea baino.

Bosgarren hipotesiak zioen sorginaren janzkeran kolore ilunaren erabilera gutxitu egingo zela eta kolore biziek, berriz, presentzia irabaziko zutela. Emaitzak ikusi ondoren, gure hipotesia bete dela egiazta dezakegu, kolore bizien kopurua handia baita (zehazki zazpi obretan (%19,4) ageri dira arropa koloretsuak). Horrekin batera, pertsonaia honek erabiltzen duen arropa motari dagokionez, soinekoa, kono itxuradun kapela eta oinetako modura botinak nabarmentzen dira.

Tenenbaum-ek (2022) aipaturakoari eusten badiogu, ordea, ikus daiteke gure ideiak ez duela bat egiten berearekin. Izan ere, berak zioen sorginak biluzik edota arropa ilunak jantzirik ibiltzen zirela, eta guk ikusi berri dugu ez dagoela sorginik biluzik ageri denik eta, bestetik, kolore iluna agertzen den arren, ez dela gehiengoarena.

Seigarren hipotesian, sorginaren rola gainontzekoei laguntzea izango zela uste genuela aipatu genuen. Emaitzei erreparatuz gero, ikus dezakegu sorgin zintzoak izateaz gain, horietatik %85,7k (N=6) gainontzekoei laguntzen dietela. Era berean, hipotesi honetan ere sorgina botereak dituen emakume gisa definitu genuela kontuan hartuz, obra hauetako sorginak emakume jakintsuak diren ala ez aztertu dugu. Emaitza esanguratsua lortu dugula aipatzekoa da, obra batean izan ezik, gainontzeko guztietan pertsonaia eta emakume jakintsu gisa agertu baita (%90,9, N=10).

Marko teorikoko atalean ikusi dugu sorginek literaturan zer nolako bilakaera izan duten. Ferreirak (2017) aipatu bezala, hasiera batean konnotazio negatiborik gabeko irudia zuen sorginak, emakume jakintsu, gaitzen sendagile eta astrologia eta alkimia ezagutzen zituen pertsonaia gisa, alegia. Obra hauetan ikusi dugu emakume jakintsuaren ezaugarria betetzen dela gehienetan. Zehazki zein ezagutza dituen ez badakigu ere, denetan botere magikoak erabiltzen dira, baita edabeak egin ere. Era berean, gaitzen sendagile gisa behin

bakarrrik agertu dela ikusi dugu. Hala eta guztiz ere, ez da alkimia eta astrologia aipatzen den obrarik.

Hau guztia aipatu ostean, burututako ikerketa honetan, garai bateko sorginaren irudia gaur egungo HGL-n ikus daitekeenarekin alderatuz gero, zenbait aldaketa izan dituela ikusi dugu, fisikoki zein agertzen duen jarrerarekiko.

Alde batetik, emaitzetan ikusi dugu Ferreirak (2017) aipatutakoa betetzen dela, hau da, egungo ipuinetan bi sorgin mota bereizten ditugula itxura fisikoaren arabera. Gure korpusean oinarrituta, egun sorgina bereizgarri egiten duten ezaugarri fisikoek eta inguruan agertzen diren elementuei dagozkienek indarrean jarraitzen dutela behatu dugu (beti betetzen ez badira ere), horien artean pertsona heldua eta ez erakargarria izatea, eta, haren inguruan erratza, lapikoa eta edabeak agertzea.

Bestalde, Fernandezek (1997) sorgin maltzurra izateari buruz esaten duena bete dela ikusi dugu ere. Egia da aztertu ditugun ipuin batzuetan pertsonaia maltzur gisa agertu dela, baina lehen beti begirada negatiboa esleitzen bazitzaion ere, geroz eta gehiegotan ageri dira emakume zintzo eta atsegin gisa, haien botereak gainontzekoei laguntzeko erabiliz.

Kontuan izanik maltzurra izatea obra klasikoetan erakutsi den sorginaren ezaugarri bereizgarrienetakoa dela, esan dezakegu aldaketa esanguratsua eman dela azken hamarkada honetan. Beraz, ikus daiteke sorginak ez direla pertsonaia beldurgarriak jada, nahiago dutelako zintzoak izan eta beren boterea gauza onetarako erabili gaizkia egiteko baino.

Ez genuke ahaztu nahi korpus hauetako sorginek erakusten duten jarrera arestian aipatu dugun azken hipotesiarekin bat egiten duela, 7.aren hain zuzen ere. Bertan, itxuraz tradizionalki emakumeari egokitu ez zaizkion ezaugarriak erakutsiko zituztela aipatu genuen, hala nola, ausartak eta independenteak bezalako ezaugarriak izatea, eta, analisisien fitxan aztertu ez badugu ere, ipuin guztietan agertu den jarrera dela behatu dugu.

Hala eta guztiz ere, hasiera batean ikusi dugun feminitate eta maskulinitate estereotipatuen ezaugarrien taulako (Secretaría de Educación Pública y Programa Universitario de Estudios de Género, 2010) zenbait ezaugarri betetzen badira ere, denek erakutsi dute ausardia dutela arazoari aurre egiteko, inongo eredu maskulinoaren inposaketarik gabe.

Aurreko guztia laburbilduz, egun ditugun ipuinetan sorginaren bertsio berri bat ikusten dugu, eta klasikoetan ikusi ohi dena gainditzen hasiak bagara ere, pertsonaia honek

topiko batzuk irudikatzen jarraitzen du, hala nola, bere jokatzeko, janzteko edo pentsatzeko modua. Azken finean, karakterizaio horrek guztiak sorginaren pertsonaia berezi egitea lortzen du, haur literaturako pertsonaia klasiko bat izateko bidean jarraituz.

Gainera, ezin genezake ukatu pertsonaia honek HGLn paper esanguratsua jokatzeko duela. Izan ere, pertsonaia erakargarria da, bere ezaugarriekin xarma berezi bat transmititzen duelako eta haurtzaroaren etapa honetan nabarmentzen den mundu magikoaren eta errealitatearen arteko mugak zabaltzea ahalbidetzen digulako.

6. HOBKUNTZARAKO PROPOSAMENAK

Lan honi esker, sorgina izateak historikoki zer suposatu duen eta, bereziki, honen irudiak HGLn izan duen islada zein bilakaera nolakoa izan den aztertzeke aukera paregabea izan dut. Beraz, esan dezaket ikerketa lan hau erabat interesgarria eta aberasgarria iruditu zaidala. Izan ere, sarreran aipatu bezala, jakinmina sortzen zidan gai bat zen eta pertsonaia honi buruzko informazio gutxi izatetik, nolabaiteko aditu izatera igaro naiz, haur literaturaren alderdiari dagokionez.

Dena den, badira ikerketa honetan gehiago aztertu edota sakondu ditzakegun alderdiak. Hori dela eta, atal honetan lanaren gabeziak eta hobekuntzarako proposamenak aipatuko ditugu.

Alde batetik, ikerkuntza lan honetan zailena egin zaidana korpusa osatzea izan da. Arestian aipatu dudana moduan, ikerketa hau euskal autoreek sortutako obretan eta euskeraz idatzia izatean oinarritzea zen asmoa, baina obra guztiek ez zuten honako baldintza hau betetzen, nire irizpideek beste bide bat hartu behar izan dute.

Bide honetatik jarraituz, interesgarria izango litzateke Europako beste herrialde batzuetako ipuinak aztertzea, herrialde ezberdinetan zer islatu den aztertzeke eta honako hau hasieran bildutako informazioarekin alderatzeko. Beraz, aipatutakoarekin batera, korpusaren lagina handitzea aukera polita izango litzatekeela uste dut. Horrela, emaitza gehiago jaso genitzake eta ikerketa osatuago bat sortu.

Bestalde, aztertutako obren argitaratze urtea azken hamarkadan definitu dugu, 2013-2023, alegia. Hau horrela, aukera interesgarria litzakete urte tarte zabaltzea. Izan ere, pertsonaia honek izan duen bilakaera luzeago aztertzeke aukera eskeiniko liguken. Beraz, gure korpusetako baldintzetan zehaztu genuen argitaratze urtea azken hamarkadakoa izan beharrean, 2000. urtetik aurrerako obrak izatea interesgarria litzateke.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Acosta, A. (2022). *La bruja Amalurra y la magia más poderosa*. Carambuco.
- Atxaga, M. (1997). *Euskal emakume idazleak (1908-1936)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Aumente, M. (2010). La imagen de las mujeres a través de su propia mirada. *Creatividad y Sociedad: Revista de la Asociación para la creatividad*, 15, 1-28.
- Barragan, F. (1989). Conocimiento social, sexismo y literatura infantil. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 11, 8-12.
- Bortolussi, M. (1985). *Análisis teórico del cuento infantil*. Alhambra.
- Brusa, M. (2019). *Cosas de bruja*. Nube Ocho.
- Caler, A. (2021). *La figura de la bruja a través de la literatura. Desde la caza de bruja hasta la contemporaneidad*. (Gratu Amaierako Lana argitaragabea). Universidad de Barcelona.
- Canizales. (2019). *Polita*. Denonartean.
- Cervera, J. (1989). En torno a la literatura infantil. *Cauce*, 12: 157-168.
- Colomer, T. (1994). A favor de las niñas. El sexismo en la literatura infantil. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 57, 7-24.
- Colomer, T. (1999). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Síntesis.
- Donaldson, J. (2021). *A zer erratz fina, pirulina!*. Bruño.
- Ehrenreich, B., eta English, D. (1981). *Brujas, parteras y enfermeras. Una historia de sanadoras femeninas*. Editorial La Sal.
- Etxaniz, X. (1997). *Haur eta gazte literatura. Kontzeptuaren defizio baten bila*. Pamiela.
- Etxaniz, X. (2007). *Literatura eta ideologia*. Utriusque Vasconiae.
- Euskaltzaindia. (d.g). Sorgin. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*.
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=sorgin&option=com_hiztegiabilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu&bila=bai
- Federici, S. (2016). *Calibán y la bruja: mujeres, cuerpo y acumulación originaria*. Abya-Yala.

- Fernández Herrero, B. (2015). Esas otras mujeres: las brujas en la literatura infantil. *Linguagem: Estudos e Pesquisas*, (19) 1, 37-50.
- Fernandez, B. (1997). Fadas e bruxas como arquétipos morais femininos nos contos. In Agra Romero, M^a. X. (koord.), *Corpo de muller: discurso, poder, cultura* (215-249 or.). Edicións Laiovento.
- Ferreira, C. (2017). El personaje en el cuento maravilloso: la subversión de arquetipos femeninos de brujas, princesas y hadas. *ALLIJ (Anuario de Investigación en Literatura Infantil y Juvenil)*, 15, 41-56.
- Irusta, A. (2014). *Sorginak*. Susaeta.
- Irusta, A. (2014). *Sorginak eta bi konkorrak*. Susaeta.
- Isern, S. (2021). *Daniela pirata eta Sofronisa sorgina*. Nube Ocho.
- Kazabon, A. (2022). *Mari, Meri eta Mori sorgin ausartak*. Denonartean.
- Lluch, G. (2007). De los narradores de cuentos folclóricos a Walt Disney: un camino hacia la homogeneización. In LLuch, G. (ed), *Invención de una tradición literaria. De la narrativa oral a la literatura para niños* (17-52. or.). Castilla La Mancha-ko Unibertsitatea.
- Martinez, M. (2022). Un poco de historia sobre la literatura y las mujeres. In *I Certamen Microrrelatos feministas de la Universidad de La Rioja* (17-27). Universidad de La Rioja.
- Meroto, T. (2017). *Sorgina Kirris Karras*. Txalaparta.
- Milán, N. (2014). *"Las brujas ya no son lo que eran". Evolución de este personaje en la Literatura Infantil*. (Gradu Amaierako Lana argitaragabea). Universidad de Valladolid. Facultad de Educación de Palencia.
- Mindegia, M. (2019). *Maria Zugarramurdikoa eta sorginduak izan ziren emakumeak*. Nabarralde.
- Nabarralde. (2018). Nabarralde.
<https://nabarralde.eus/maria-zugarramurdikoa-komikia-plazaratu-dugu/>
- Olid, B. (2020). *Las Brujas de Ariete*. Combel.

- Olivan, S. (2017). *Doble visión de los estereotipos de género en la Literatura Infantil, al antes y el ahora*. (Grado Amaierako Lana argitaragabea). Universidad de Zaragoza. Facultad de Ciencias Humanas y de la Educación. Campus de Huesca.
- Orquín, F. (1989). La nueva imagen de la mujer. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 2(11), 14-19.
- Parra, J. (2009). *Educación en valores y no sexista*. Instituto de la Mujer Castilla-La Mancha: Toledo.
https://institutomujer.castillalamancha.es/sites/institutomujer.castillalamancha.es/files/publicaciones/descargas/educacion_en_valores_y_no_sexista_4.doc.pdf
- Penagos Concha, V. (2004). Sexismo en la literatura infantil y juvenil: una exclusión para ser cuestionada, en Accorsi, Simone (comp.), *Género y literatura en debate* (143 or.). Colombia, Escuela de Estudios Literarios/Centro de Estudios de Género, Mujer y Sociedad Universidad del Valle.
- Tenenbaum, E. [eugeniatenenbaum]. (2022ko urriaren 17a). *4 mitos sobre la persecución de brujas* [Reel]. Instagram.
https://www.instagram.com/reel/Cj0thVNleaw/?utm_source=ig_web_copy_link
- Tenenbaum, E. [eugeniatenenbaum]. (2022ko urriaren 30a). *Representación de las brujas en Europa* [Reel]. Instagram.
https://www.instagram.com/reel/CkWeDnBK9fb/?utm_source=ig_web_copy_link
- Thomas, V. (2017). *Brunilda y Bruno. La Bruja Brunilda*. Blume.
- Turín, A. (1995). *Los cuentos siguen contando. Algunas reflexiones sobre los estereotipos*. Horas y Horas.
- Secretaría de Educación Pública y Programa Universitario de Estudios de Género (2010). *Equidad de género y prevención de la violencia en primaria*. México: Secretaría de Educación Pública/Programa Universitario de Estudios de Género.
- Serret, E., Alfie, M., y García-Castro, M. (1991). El problema de la desigualdad sexual: Más allá del feminismo. *Sociológica*, 6(15), 415-435.
- Soriano, M. (1975). *Guide de la littérature pour la jeunesse*. Flammarion.
- Soriano, M. (1995). *La literatura para niños y jóvenes. Guía de exploración de sus grandes temas*. Ediciones Colihue.

Sau, V. (2000). *Diccionario ideológico feminista (Vol.1)*. Icaria.

Valriu, C. (1998). *Influències de les rondalles en la literatura infantil i juvenil catalana actual (1975-1985)*. Moll.

8. ERANSKINAK

1. eranskina: analisirako taulak

Izenburua: La bruja Amalurra y la magia más poderosa					
Egilea: Alicia Acosta (idazlea) eta Leire Martin (ilustratzailea)					
Editoriala	Argitalpen urtea eta herrialdea	Hizkuntza	Itzulpena		Jatorrizko hizkuntza
Carambuco	2022 Espainia	Gaztelera	Bai	Ez	
				X	

1. Zenbateko adina du sorginak?	
Heldua	Gaztea / Haurra
	X
Oharrak:	

2. Zein ezaugarri fisiko ditu?		
Itsusia / Ez erakargarria	Erakargarria	Beste batzuk
	X	
Oharrak: - Liburuak dio: "En lugar de nariz picuda, dientes negros y verrugas, Amalaurra tenía una hermosa sonrisa, alegre mirada y mejillas sonrojadas".		

3. Zein elementu agertzen dira bere inguruan?				
Erratza	Katu beltza	Lapikoa	Akerra	Beste batzuk
	X	X		X

Oharrak:

- Beste animalia batzuk ageri dira: txoriak, igelak.
- Makilatxo magikoa.
- Kristalezko bola.
- Edabea.

4. Maltzurra da?

Bai	Ez	
	X	
	Gainontzekoei laguntzen die?	
	Bai	Ez
	X	

Oharrak:

5. Zer nolako arropak janzten ditu?

Ez du arroparik, biluzik dago	Ilunak / beltzak	Koloretsuak	Kapela darama	Beste batzuk
		X	X	

Oharrak:

- Liburuak dio: "No vestía de negro ni daba miedo; al contrario, llevaba un vestido verde brillante, un gorro de lo más divertido y una boa de plumas muy elegante".
- Botinak ditu.

6. Emakume jakintsua da?			
Bai		Ez / Ez dakigu	
X			
Zein ezagutza mota erakusten ditu?			
Alkimia	Astrologia	Sendabide naturalak	Beste batzuk
			X
<p>Oharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dakigu zehazki zein ezagutza dituen baina sorginkerien liburua eta makilatxo magikoa erabiltzen ditu basoa garbitzeko. 			

Izenburua: **Cosas de bruja**

Egilea: Mariasole Brusa (idazlea) eta Marta Sevilla (ilustratzailea)

Editoriala	Argitalpen urtea eta herrialdea	Hizkuntza	Itzulpena		Jatorrizko hizkuntza
NubeOcho	2019 Portugal	Gaztelera	Bai	Ez	Italiera
			X		

1. Zenbateko adina du sorginak?

Heldua	Gaztea / Haurra
X	
Oharrak:	

2. Zein ezaugarri fisiko ditu?

Itsusia / Ez erakargarria	Erakargarria	Beste batzuk
X		
Oharrak: - Sudur nabarmena du, garatxo batekin.		

3. Zein elementu agertzen dira bere inguruan?

Erratza	Katu beltza	Lapikoa	Akerra	Beste batzuk
X	X	X		
Oharrak:				

- Beste animalia batzuk ageri dira: saguak, saguzarrak, zozoak.
- Edabeak.

4. Maltzurra da?

Bai	Ez	
X		
	Gainontzekoei laguntzen die?	
	Bai	Ez

Oharrak:

- Nicolas izeneko umea lapurtu nahi du (azkenean lortzen ez badu ere).

5. Zer nolako arropak janzten ditu?

Ez du arroparik, biluzik dago	Ilunak / beltzak	Koloretsuak	Kapela darama	Beste batzuk
	X		X	X

Oharrak:

- Leotardo marradunak ditu.
- Soineko beltza darama.
- Botinak ditu.

6. Emakume jakintsua da?

Bai	Ez / Ez dakigu
X	

Zein ezagutza mota erakusten ditu?			
Alkimia	Astrologia	Sendabide naturalak	Beste batzuk
			X
<p>Oharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dakigu zehazki zein ezagutza dituen baina edabeak egiten ditu (ilea kolorez aldatu nahi du). 			

Izenburua: **Polita**

Egilea: Canizales (idazlea eta ilustratzailea)

Editoriala	Argitalpen urtea eta herrialdea	Hizkuntza	Itzulpena		Jatorrizko hizkuntza
Denonartean	2019 Espainia	Euskara	Bai	Ez	Gaztelera
			X		

1. Zenbateko adina du sorginak?

Heldua	Gaztea / Haurra
X	

Oharrak:

- Istorioan aurrera joan ahala, ikus dezakegu itxuraz emakume zahar baten ezaugarriak desagertzen joango direla, bere makilatxoarekin bere burua "txukuntzen" baitu.

2. Zein ezaugarri fisiko ditu?

Itsusia / Ez erakargarria	Erakargarria	Beste batzuk
X		X

Oharrak:

- Edertasunaren inguruan hitz egiten du album ilustratu honek. Istorioan aurrera egin ahala "ederrago" bilakatzen joango da.

3. Zein elementu agertzen dira bere inguruan?				
Erratza	Katu beltza	Lapikoa	Akerra	Beste batzuk
				X
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Makilatxo magikoa du. - Ageri diren beste animaliak: urtxintxa, untxia, azeria eta sagua. 				

4. Maltzurra da?	
Bai	Ez
X	
Gainontzekoei laguntzen die?	
Bai	Ez
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Sorgin hau izatez ez da gaiztoa, baina politago izateko itxuraz aldatzeko esaten dioten animaliei mendekua hartzen die (sukaldata egiten ditu). 	

5. Zer nolako arropak janzten ditu?				
Ez du arroparik, biluzik dago	Ilunak / beltzak	Koloretsuak	Kapela darama	Beste batzuk
	X		X	
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Soineko beltza darama. 				

6. Emakume jakintsua da?			
Bai		Ez / Ez dakigu	
		X	
Zein ezagutza mota erakusten ditu?			
Alkimia	Astrologia	Sendabide naturalak	Beste batzuk
<p>Oharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez du ezagutza berezirik erakusten. 			

Izenburua: **A zer erratza fina, pirulina!**

Egilea: Julia Donaldson (idazlea) eta Axel Scheffler (ilustratzailea)

Editoriala	Argitalpen urtea eta herrialdea	Hizkuntza	Itzulpena		Jatorrizko hizkuntza
Bruño	2021 Espainia	Euskaraz	Bai	Ez	Ingelesa
			X		

1. Zenbateko adina du sorginak?

Heldua	Gaztea / Haurra
X	

Oharrak:

- Kolore laranjeko ilea duen arren, ile urdinak ikusten zaizkio. Beraz, zaharra dela ondoriozta daiteke.

2. Zein ezaugarri fisiko ditu?

Itsusia / Ez erakargarria	Erakargarria	Beste batzuk
X		X

Oharrak:

- Sudur nabarmena du, garatxo batekin batera.
- Azazkal luzeak.

3. Zein elementu agertzen dira bere inguruan?				
Erratza	Katu beltza	Lapikoa	Akerra	Beste batzuk
X		X		X
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Katua ageri da, baina honako hau ez da beltza, laranja baizik. - Gainontzeko animaliei dagokienez: zozoak, txakurra, hontza, katagorria, lora, igela eta herensugea ageri dira. - Makilatxo magikoa. 				

4. Maltzurra da?		
Bai	Ez	
	X	
	Gainontzekoei laguntzen die?	
	Bai	Ez
	X	
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Esker oneko sorgina da. Topatzen dituen animaliek laguntza eskaintzen diotenez, berak ere mesedea itzultzen die. 		

5. Zer nolako arropak janzten ditu?				
Ez du arroparik, biluzik dago	Ilunak / beltzak	Koloretsuak	Kapela darama	Beste batzuk
	X	X	X	
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Kolore beltza elementu aipagarrietan ageri da, hala nola, kapelan, kaban eta 				

zapatetan. Gainontzeko arropa koloretsua da.

- Gona koloretsua darama.
- Botinak ditu.

6. Emakume jakintsua da?

Bai	Ez / Ez dakigu
X	

Zein ezagutza mota erakusten ditu?

Alkimia	Astrologia	Sendabide naturalak	Beste batzuk
			X

Oharrak:

- Sorginkeria egiten du lapikotik erratz liluragarria ateratzeko (bere lagunei sutara botatzeko zerbait bilatzeko eskatzen die eta honako elementu hauekin sorginkeria egiten du: lili bat, pinaburu ireki bat, adar lehor bat eta hezur zuri bat).

Izenburua: **Sorginak**

Egilea: Antton Irusta (idazlea) eta Enrique Morente (ilustratzailea)

Editoriala	Argitalpen urtea eta herrialdea	Hizkuntza	Itzulpena		Jatorrizko hizkuntza
Susaeta	2014 Espainia	Euskara	Bai	Ez	
				X	

1. Zenbateko adina dute sorginek?

Heldua	Gaztea / Haurra
X	

Oharrak:

2. Zein ezaugarri fisiko dituzte?

Itsusia / Ez erakargarria	Erakargarria	Beste batzuk
X	X	

Oharrak:

- Sudur nabarmena dute.
- Azkazal luzeak eta hortz gutxi dituzte.
- Sorgin batzuk itsusiak dira eta beldurra ematen dute, beste batzuk, aldiz, ez.

3. Zein elementu agertzen dira bere inguruan?

Erratza	Katu beltza	Lapikoa	Akerra	Beste batzuk
X		X	X	X

Oharrak:

- Beste animalia batzuk ageri dira: katu laranja, saguzarrak, karakolak, sugandila, igelak, txoria.
- Sua (akelarrea egiteko).
- Eguzkiloa.
- Burezurra.
- Sendabelarrak.
- Edabeak.

4. Maltzurak dira?

Bai		Ez	
X		X	
		Gainontzekoei laguntzen die?	
		Bai	Ez
		X	

Oharrak:

- Sorginen hitzetan: "Gaiztoak gara eta botere handiak ditugu. Batzuetan sorgin gaiztoak bihur gaitezke."
- Hala eta guztiz ere gainontzekoei laguntzen diete. Izan ere, sendalariak dira eta ondoko herrixketako jendea beraiengana joaten da aholkuen eta sendabelarren bila.

5. Zer nolako arropak jantzten dituzte?				
Ez du arroparik, biluzik dago	Ilunak / beltzak	Koloretsuak	Kapela darama	Beste batzuk
		X		X
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriko kondairei buruzko liburua denez gero, Mari Domingiren antzera jantzita daude: gona luzea, amantala, alkandora, abarkak eta buruan "kapela". 				

6. Emakume jakintsuak dira?			
Bai		Ez / Ez dakigu	
X			
Zein ezagutza mota erakusten ditu?			
Alkimia	Astrologia	Sendabide naturalak	Beste batzuk
		X	X
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Landareen sekretuak ezagutzen dituzte. - Sorginkeriak egiten dituzte. 			

Izenburua: **Sorginak eta bi konkorrak**

Egilea: Antton Irusta (idazlea) eta Enrique Morente (ilustratzailea)

Editoriala	Argitalpen urtea eta herrialdea	Hizkuntza	Itzulpena		Jatorrizko hizkuntza
Susaeta	2014 Espainia	Euskara	Bai	Ez	
				X	

1. Zenbateko adina du sorginak?

Heldua	Gaztea / Haurra
X	

Oharrak:

- Zaharra da.

2. Zein ezaugarri fisiko dituzte?

Itsusia / Ez erakargarria	Erakargarria	Beste batzuk
X		

Oharrak:

- Sudur nabarmena dute, batzuek garatxo bat ere bai.

3. Zein elementu agertzen dira beren inguruan?

Erratza	Katu beltza	Lapikoa	Akerra	Beste batzuk
X	X	X	X	X

Oharrak:

- Beste animalia batzuk ageri dira: sugeak, zozoa, saguzarrak, armiarmak, sagua.
- Sorgin Nagusiaren eserlekuan aker burua ageri da (akelarrea egiten dute bertan) eta baita sorginaren etxean ere.
- Edabeak.
- Burezurra.

4. Maltzurak dira?

Bai	Ez	
	X	
	Gainontzekoei laguntzen diete?	
	Bai	Ez
	X	

Oharrak:

- Lehenengo anaiak sorginaren hitza bete ez bazuen ere, Sorgin Nagusiak konkorra kendu zion. Baina bigarren anaiak ere ez zuenez sorginaren hitza bete, bere anaiaren konkorrarekin zigortu egin zuen.

5. Zer nolako arropak janzten dituzte?

Ez du arroparik, biluzik dago	Ilunak / beltzak	Koloretsuak	Kapela darama	Beste batzuk
		X		X

Oharrak:

- Euskal Herriko kondairei buruzko liburua denez gero, Mari Domingiren antzera jantzita daude: gona luzea, amantala, alkandora, abarkak eta buruan "kapela".

6. Emakume jakintsuak dira?			
Bai		Ez / Ez dakigu	
X			
Zein ezagutza mota erakusten dituzte?			
Alkimia	Astrologia	Sendabide naturalak	Beste batzuk
			X
<p>Oharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dakigu zehazki zein ezagutza dituen baina sorginkeriak egiten dituzte. 			

Izenburua: **Daniela pirata eta Sofronista sorgina**

Egilea: Susanna Isern (idazlea) eta Gomez (ilustratzailea)

Editoriala	Argitalpen urtea eta herrialdea	Hizkuntza	Itzulpena		Jatorrizko hizkuntza
			Bai	Ez	
NubeOcho	2021 Portugal	Euskara	Bai	Ez	Gaztelera
			X		

1. Zenbateko adina du sorginak?

Heldua	Gaztea / Haurra
X	

Oharrak:

- Zaharra da.

2. Zein ezaugarri fisiko ditu?

Itsusia / Ez erakargarria	Erakargarria	Beste batzuk
X		

Oharrak:

- Azazkal luzeak.

3. Zein elementu agertzen dira bere inguruan?

Erratza	Katu beltza	Lapikoa	Akerra	Beste batzuk
X		X		X

Oharrak:

- Beste animalia batzuk ageri dira: sugea, igela, armiarma, sagua, mota askotariko

zomorroak.

- Kristalezko bola.
- Edabeak.

4. Maltzurra da?

Bai	Ez	
X		
	Gainontzekoei laguntzen die?	
	Bai	Ez

Oharrak:

- Ipuinaren amaieran maltzurra izateari uzten diola ikus daiteke.

5. Zer nolako arropak janzten ditu?

Ez du arroparik, biluzik dago	Ilunak / beltzak	Koloretsuak	Kapela darama	Beste batzuk
		X		X

Oharrak:

- Ilean katu itxura duen apaingarria darama.
- Galtza horiak daramatza.

6. Emakume jakintsua da?

Bai	Ez / Ez dakigu
X	

Zein ezagutza mota erakusten ditu?			
Alkimia	Astrologia	Sendabide naturalak	Beste batzuk
			X
<p>Oharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dakigu zein ezagutza dituen zehazki baina edabe magikoak egiten ditu. 			

Izenburua: **Mari, Meri eta Mori sorgin ausartak**

Egilea: Antton Kazabon (idazlea) eta Jokin Mitxelena (ilustratzailea)

Editoriala	Argitalpen urtea eta herrialdea	Hizkuntza	Itzulpena		Jatorrizko hizkuntza
Denonartean	2022 Espainia	Euskara	Bai	Ez	
				X	

1. Zenbateko adina dute sorginek?

Heldua	Gaztea / Haurra
	X

Oharrak: Protagonistak eskolara doazen hiru haur diren arren, ipuinaren amaieran ikus daiteke hauetako baten ama eta amona ere sorginak direla. Horrez gain, ipuinaren hasieran ere adin ezberdinetako sorginak ageri dira: haur bat, gazteak eta helduak.

2. Zein ezaugarri fisiko dituzte?

Itsusia / Ez erakargarria	Erakargarria	Beste batzuk
		X

Oharrak:

- Nahiko neutroak dira.
- Ipuinaren hasieran agertzen diren sorginei dagokienez: ez dira erakargarriak eta sudur nabarmena dute.

3. Zein elementu agertzen dira beren inguruan?				
Erratza	Katu beltza	Lapikoa	Akerra	Beste batzuk
X		X		X
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Beste animalia batzuk ageri dira: zozoa, igela, sagua, hontza, katua, armiarma. - Edabe magikoa egiteko erabili beharreko osagaiak: mihura, pasmo-belarra, azeri-buztana, berbena, oiloaren behazuna, elorri zuriaren hostoak. 				

4. Maltzurak dira?		
Bai	Ez	
	X	
	Gainontzekoei laguntzen die?	
	Bai	Ez
	X	
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Hiru neskatoak elkarri laguntzen diote. - Ipuinaren hasieran agertzen sorginei dagokienez honakoa aipatzen du: "Herrian eta inguruan fama txarra omen zuten, eta etxe koentzat ere ez omen zen batere ona familian sorginen bat bazela zabaltzea." 		

5. Zer nolako arropak janzten dituzte?				
Ez du arroparik, biluzik dago	Ilunak / beltzak	Koloretsuak	Kapela darama	Beste batzuk
		X		X
Oharrak:				

- Ipuin honetako ilustrazioetan soilik kolore berdea nabarmentzen da, gainontzeko guztia txuri-beltzean dago. Hala eta guztiz ere, portadan hiru protagonistak ikus daitezke eta hauen erropak koloretsuak dira.
- Ipuinaren hasieran agertzen diren sorginei dagokienez: kapela bat, gona eta botinak daramatzate (batzuk oinutsik ageri dira).

6. Emakume jakintsuak dira?

Bai	Ez / Ez dakigu
X	

Zein ezagutza mota erakusten ditu?

Alkimia	Astrologia	Sendabide naturalak	Beste batzuk
			X

Oharrak:

- Haurrek objektuak lekualdatzea ahalbidetzen dieten botere magikoak dituzte.
- Birramonak hegan egiteko erkatzairen eta sorginen edabearen osagaiak, zein horiek funtzionatzeko hitz magikoak zeintzuk diren azaltzen ditu.

Izenburua: **Sorgina Kirris Karras**

Egilea: Tina Meroto (idazlea) eta Maurizio A. C. Quarello (ilustratzailea)

Editoriala	Argitalpen urtea eta herrialdea	Hizkuntza	Itzulpena		Jatorrizko hizkuntza
Txalaparta	2017 Espainia	Euskara	Bai	Ez	Galegoa
			X		

1. Zenbateko adina du sorginak?

Heldua	Gaztea / Haurra
X	

Oharrak:

- Zaharra da.

2. Zein ezaugarri fisiko ditu?

Itsusia / Ez erakargarria	Erakargarria	Beste batzuk
X		

Oharrak:

- Sudur nabarmena du eta itsusia izateaz gain, beldurra ematen du.
- Hortz zorrotzak ditu.
- Azazkal luzeak.

3. Zein elementu agertzen dira bere inguruan?				
Erratza	Katu beltza	Lapikoa	Akerra	Beste batzuk
		X		X
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Beste animalia batzuk ageri dira: sugea, igela, armiarma, sagua, hiru begiko txakurra, sugandila, oiloa, mota askotariko zomorroak. - Burezurrak. 				

4. Maltzurra da?	
Bai	Ez
X	
Gainontzekoei laguntzen die?	
Bai	Ez
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Haurrei iruzur egiten die hauek jan nahi dituelako. 	

5. Zer nolako arropak janzten ditu?				
Ez du arroparik, biluzik dago	Ilunak / beltzak	Koloretsuak	Kapela darama	Beste batzuk
	X			
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Soinekoa du. 				

6. Emakume jakintsua da?			
Bai		Ez / Ez dakigu	
X			
Zein ezagutza mota erakusten ditu?			
Alkimia	Astrologia	Sendabide naturalak	Beste batzuk
			X
<p>Oharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dakigu zein ezagutza dituen zehazki baina objektu magikoak ditu. 			

Izenburua: **Las brujas de Ariete**

Egilea: Bel Olid (idazlea) eta Pep Montserrat (ilustratzailea)

Editoriala	Argitalpen urtea eta herrialdea	Hizkuntza	Itzulpena		Jatorrizko hizkuntza
Combel	2020 Espainia	Gaztelera	Bai	Ez	Katalana
			X		

1. Zenbateko adina dute sorginek?

Heldua	Gaztea / Haurra
X	

Oharrak:

- Ile zuriagatik ondoriozta genezake beren adina.

2. Zein ezaugarri fisiko dituzte?

Itsusia / Ez erakargarria	Erakargarria	Beste batzuk
	X	X

Oharrak:

- Fisikoki nahiko neutroak dira, baina ipuin guztian zehar ikus daiteke sorginak irribarretsu ageri direla. Horrek, beraz, irakurlearengan sentsazio atsegina eragiten duela uste dut, erakargarriak bihurtzen dituelako.
- Sudur nabarmena dute, garatxo batekin batera.

3. Zein elementu agertzen dira beren inguruan?				
Erratza	Katu beltza	Lapikoa	Akerra	Beste batzuk
X		X		
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Beste animalia batzuk ageri dira: armiarmak, zomorroak, txoriak. - Edabeak. 				

4. Maltzurak dira?		
Bai	Ez	
	X	
	Gainontzekoei laguntzen die?	
	Bai	Ez
	X	
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Sorginek animalia azti on bat bihurtzeko asmoa dute. 		

5. Zer nolako arropak janzten dituzte?				
Ez du arroparik, biluzik dago	Ilunak / beltzak	Koloretsuak	Kapela darama	Beste batzuk
	X		X	
Oharrak: <ul style="list-style-type: none"> - Denek soineko beltza daramate. - Sorgin bakoitza kolore batek bereizten du besteengandik. - Botinak dituzte. 				

6. Emakume jakintsuak dira?			
Bai		Ez / Ez dakigu	
X			
Zein ezagutza mota erakusten ditu?			
Alkimia	Astrologia	Sendabide naturalak	Beste batzuk
			X
Oharrak:			
- Ez dakigu zein ezagutza dituzten zehazki baina edabeak egiten dituzte.			

Izenburua: **Brunilda y Bruno. La bruja Brunilda**

Egilea: Valerie Thomas (idazlea) eta Korky Paul (ilustratzailea)

Editoriala	Argitalpen urtea eta herrialdea	Hizkuntza	Itzulpena		Jatorrizko hizkuntza
Blume	2006	Gaztelera	Bai	Ez	Ingelesa
			X		

1. Zenbateko adina du sorginak?

Heldua	Gaztea / Haurra
X	
Oharrak:	

2. Zein ezaugarri fisiko ditu?

Itsusia / Ez erakargarria	Erakargarria	Beste batzuk
X		
Oharrak: <ul style="list-style-type: none">- Sudur nabarmena du.- Hortz zorrotzak ditu.		

3. Zein elementu agertzen dira bere inguruan?

Erratza	Katu beltza	Lapikoa	Akerra	Beste batzuk
X	X	X		X
Oharrak:				

- Beste animalia batzuk ageri dira: sugea, zozoa, igela, armiarma, mota askotariko zomorroak.
- Makilatxo magikoa.
- Edabeak.
- Burezurra.

4. Maltzurra da?

Bai	Ez	
	X	
	Gainontzekoei laguntzen die?	
	Bai	Ez
		X

Oharrak:

5. Zer nolako arropak janzten ditu?

Ez du arroparik, biluzik dago	Ilunak / beltzak	Koloretsuak	Kapela darama	Beste batzuk
		X	X	X

Oharrak:

- Leotardo marradunak ditu.
- Soineko urdina darama.
- Begizta hori bat du.
- Botinak ditu.

6. Emakume jakintsua da?			
Bai		Ez / Ez dakigu	
X			
Zein ezagutza mota erakusten ditu?			
Alkimia	Astrologia	Sendabide naturalak	Beste batzuk
			X
<p>Oharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dakigu zehazki zein ezagutza dituen baina bere makilatxo magikoa erabiltzen du katua kolorez aldatzeko. 			